


# *Munduko Hiritarrok*

Gure munduko protagonistak gara



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

# 1. Bai, baina zein mundutakoak?

Seguruenik, gaurko mundua itxuratzen duten prozesuak zein ezaugarriak definitzeko erabili ohi diren izen eta esamolde desberdinak darabiltzagu gure buruetan. “Informazio gizartea”, “Postmodernitatea”, “Globalizazioa”, “Kapitalismo berantiarra”, etab. dira haietako batzuk.

Izendapen horiez haraindian, zalantzarik eragiten ez diguna zera da: *gure bizitzetan*, mundua ulertzeko moduan, munduan jarduteko moduan, *eragin handia duen zenbait aldaketa sozialen* lekuko garela. Teknologia berriak edo gure hirietan beste kultura batzuk egotea izango lirateke gauza berrien bi adibide. Aldaketa hauek guztiek gauza onuragarriak ekar diezazkigukete, bihozberatasunean haztea ahalbide dezaketenak. Baina, askotan, baztertze, desberdintasun eta munduko gaitzekiko axolagabetasun dinamikak areagotzen dihardute.

**Gure bizitzetan eragin handia duen zenbait aldaketa sozialen lekuko gara**

## Eskubideen erretorika

Ez da gehiegikeria esatea giza eskubideak paradigma etiko globala bilakatzen ari direla, hainbat frontetik zalantzan jartzen badira ere, eta hainbat lekutan eta jende askorentzat paper erre badira ere. Nolabait, norberak gainerakoen *betebeharrak eta erantzukizunak* ahaztu eta alde batera uzteagatik gertatzen da hau. Eskubide bat ez da berez eraginkorra, dagokion betebeharra dela medio da eraginkorra. Eta hau garrantzitsua izaten da ahulen eskubideez ari garenean .

Beste alde batetik, batzuetan, eskubideen erretorika munduko biztanle guztiei orokor ezin bilaka daitezkeen bizimodu eta gizarte eusteko erabili ohi da. Kontsumoko gizarte bizimoduaz ari gara, ingurune iraunkortasun eta gizarte berdintasun arazoak direla eta, gizateriaren gehiengoak inoiz eskuragarri izango ez duena. *Unibertsal bihurtu ezin diren eskubideak, eskubideak baino, pribilegioak* direla ohartu behar gara.

## Urrutiko erabakiak

Gainerakoen eskubideek dakartzaten “betebeharren” utzikieriaz gain, hiritarrok herri arazoengandik *gaitzuztez* urruntzen garela ikusten dugu. Askok dira egoera honen zergatiak. Lehenengoa, *gogobetetzearen kulturen* bizi garela, eta hau dela eta, eremu pribatuetan (familia, lagunak, lana, kontsumoa...), nor bere bakarrera bihurtzen da, *guztion ongizateaz* kezkatzea alde batera uzten dela.

Bestalde, honako joera hau ondorengo zerak indartzen du: gure bizitzetan eragina duten gero eta erabaki gehiago *urrutiko guneetan* hartzen direla ikus dezakegu, guk parte hartzeko gaitasuna ez dugun gune horietan, hain zuzen.

*Gure munduko protagonistak* garenaz ohartu behar gara berriz ere, eta baita gure ingurune hurbilean errealitatea aldatzeko gaitasuna aurkitu ere. Mugimendu sozial global bat (baina lokalean diharduena), pixkanaka eta kontraesanez, azalartzea da jarduteko aukera dugula adierazten digun aldea.

## Nortasuna eta gatatzka

Munduko gune bakarra osatzeko prozesu honen ondorio gisa, *identitate* kontua indarrez azaltzen da berriro ere. Gizaki orok erroak izateko beharra du, eta baita talde bateko zati izatekoa eta bere burua ezaugarri jakin batzuetan ezagutzekoa. Era berean, beharrezkoa da nortasun hura duintasunez berdinak diren gizaki izateko gure modu zehatz gisa *onar dadin*. Zeren alor kultural jakin batean baita gure ulertzeko modua eta horizontea itxuratzen duten oinarriko osagaiak geureganatzen ditugun tokia.

Nortasun hau, konplexua eta dinamikoa dena, eta era askotako osagaiak osatzen dutena, ezin da bestelako talde eta gizakien ekarpenei hertsitu. Honela, gure kulturatik bereizten diren eta handituz doazen kultura desberdinak aukera ezin hobea dira elkarri aberasteko.



Baina elkartzea ez dela gatazkarik gabekoa ikusten dugu. Eta honek ez du kaltegarria zertan izan behar. Gatazka, esku-hartzen duten alderdiak hazteko aukera hobezina izan daiteke, baldin eta bide baketsu eta elkarrizketa-bideen bidez kudeatzen badugu. Zoritxarrez, oraindik hau ez da ohikoena.

**Unibertsal  
bihurtu ezin diren  
eskubideak,  
eskubideak baino,  
pribilegioak dira**

## 2. Hiritartasun-idea

Hiritartasuna azken urteotan gaurkotasuna hartu duen terminoa da. Hiritartasunaz Europa zaharrea ari da, baita Latinoamerikako herrietan, eta kultur aniztasuneko herrietan, esaterako Australia edo Kanadan, ere. Modan dagoen kontzeptua da...baina aspaldikoa ere.

### Aspaldiko bi tradizio

- Alde batetik, **tradizio grekoa**, hain zuzen ere, demokrazia atenastarrarena. Atenastarrek *poliseko partaide izatea* beren bizitzako gora-behera bat baino, funtsezko gauza zela konturatu ziren. Parte-hartze honek guztien arazoan erantzule bihurtzen zituen eta errepublikan parte hartarazten zituen. Atenasen, hiritarra izateak *arazo publikoetan* jardutea esan nahi zuzen, erabakiak hartzeko bide gisa, bortxakeria eta inposaketa baino, elkarrizketa eta *deliberamendua* erabiliz. Atenastarrek gatazken erdian hitzaren indarra sarrarazi zuten.

Hala eta guztiz ere, tradizio grekoan, hiritartasunak atzerritarrek, esklaboak eta emakumeak alde batera uzten zituen. Hiritartasun hau etnikoa, aristokratikoa eta misoginoa zen. Tradizio honen garapen historikoak partaide izateko zirkulu berriak lortu ditu (borroka zein atzeraldiekin, eta oraindik ez osorik): generoaren zirkulua, klase sozialen zirkulua eta etniaren zirkulua. Honela, esan genezake tradizio grekoak unibertsaltasunaren hazia zeramala bere baitan, gaur egun oraindik lortzear dagoen hiritartasun unibertsalarena.

- Bestetik, **tradizio erromatarra**. Erromako tamaina zela eta, ezinezkoa izan zen arazo publikoetan zuzenean parte hartzeko ideia gauzatzeko. Hala eta guztiz ere, Erromak bazuen zuzenbidea grekoek baino bizkorrago ulertzeko modua eta hiritartasun erromatarra *babes juridiko* gisa ulertu zuen. Hiritarra legearen babespean diharduen eta inperioan zehar honen babespea espero duen hori da. Leku bateko partaide izatea ez zen hemen hain garrantzitsua. Baina bai legeak hiritarrari eskaintzen zion babespea.

Tradizio erromatarra, grekoa bezalaxe, historian zehar hedatzea izan du. Gizakiok geure duintasunetik ondorioztatzen diren eskubideen garrantziaz jabetu gara: eskubide zibilak eta politikoak (1. belaunaldia), eskubide ekonomiko eta sozialak (2. belaunaldia) eta garapenerako zein ingurugiro osasungarria eta bakea izateko eskubideak (3. belaunaldia). Eta ez gizabanako gisa besterik ez, baita, haien berberatasuna iraunaraztearren, bere etorkizuna erabakitzeko gai diren kolektibitate eta herri gisa ere. Gizaki izateagatik babesten gaituzten eskubide hedatze honek tradizio erromatarra aberastu egin du.

**Ez al gara  
eskubideen objektu  
pasiboak, subjeto  
aktiboeta  
erantzuleak baino?**

Historian zehar aztarnak utzi dituzten bi tradizio hauen ildotik, hiritartasuna ondorengo **bi osagaiak batzearen** ondorio gisa onar dezakegu: hiritartasuna *estatutu juridikoa*, hots, babesten nauen eskubide-gutuna, dakar; eta, aldi berean, barnean behartzen nauen *partaide izateko* zentzua dakar.

### Zein hiritartasun-ikuskera da nagusi gure garaian?

Mendebaldeko gogoeta etikoaren zati handi bat eskubideez aritu da: botere publikoari gizakiaren duintasun hauskaitza agertzeko modua zen. Errealitatean *nire eskubideen* babes aratz bilakatu da, hizkuntza honen zilegitasuna *ahulen eskubideen* babesetik datorrenean.



Beste alde batetik, modernitateak eragin zuen estatuaren hazkundeak, estatuaren gainean antzina hiritarrek beren hurkoarekiko zituzten betebeharrak irauli ditu. Egoera honek besteren oinazearekiko hozkeria eta aihergatasuna areagotu ditu. *Honako hau arduragabetzen den hiritartasuna da.*

Amaitzeko, hiritartasuna Estatu nazionaleri besterik ez dagokie (honek, europar garen lez, mundutik zehar jaun/andre bezala bidaiatzea ahalbidetzen digu, gu bezalakoak baina herri txiroetakoak diren bestelako gizaki batzuk gure herrietan eskubiderik –gizaki izateagatik eta ez “tokikoak” izateagatik dagozkienak- ez duten bitartean). *Hiritartasun unibertsala* garatu beharra dago, gizaki ororen generokoak garela kontuan hartzen duena.

**Hiritartasun gogotsua**, motibatua, garatu beharra dago, tradizio bikoitza –grekoa eta erromatarra- ahazten ez duena, hauen alaba baita. *Eskubideak eta erantzukizunak elkartzeko garaia da.* Eskubideak burujabatasuna babestu eta bermatzen du; erantzukizunak elkartu eta gizatiartzen du.

## Hiritartasunaren ikuskera berri baterako funtsezko osagaiak

1. **Eskubide eta erantzukizunen arteko oreka:** lehen aipatu bezala, ez da nahikoa eskubideak edukitzea. Hauek ezinbestekoak ditugu. Baina ez dira nahikoak. Erantzukizunak ere behar ditugu.

*Norberarengan hasten den erantzukizuna, norberaren lanean eta bizitzan bere buruaren onena kanporatzean hasten dena;* gizateriaz beraz arduratzen den erantzukizuna. Zuzenbideak hiritar izateko eskubidea onartzen badigu ere, erantzukizunak hiritar nagusigoa nabarmentzen du. Honako hau gure bizitzako alderdi desberdinetan –familiar, lagunartean, lanbidean...– zentzua hartzen duen egitekoa da.

*Hurkoarengana heltzen den erantzukizuna, nire zati bailitzan sentitzen baitut.* Zerbaiteko partaide izatearen zirkulu zorrotzetan gelditzen ez den erantzukizuna, urrutiko gizaki kidekoaren aurpegia, batez ere pairatzen duenarena, antzematen duena, gure gizatasuna arriskuan jartzen den tokia.

2. **Arazo publikoetan parte hartzea:** publikoa gizaki guztion zera da. Ez “onenena”, politika-klasearena, horretarako “balio” dutenarena besterik ez. Arazo publikoak politikoen eta merkatuaren aukeramenean lagatzea, guztiontzako garrantzitsua dena alderdikeria eta interes partikularren eskuetan uzteko modurik onena da. Hiritartasun berritu batek gizarteko maila guztietako *ekintzan eta erabakien hartzean* parte hartzeko asmoa du. Horregatik, hiritartasun honen heldutasunaren adierazgarrietako bat elkarte zibiletan askatasunez eta borondatez parte hartzea da.

Modernitateak publikoa eta pribatua bereizteko horma antolatu zuen. Demokrazia liberalak horma hau gure askatasuna bermatuko zuen jardunbide bilakatu zuen. Baina gizartearen parte hartzeak harea publikoan garen guztiarekin (baita geure motibazioekin ere, pribatuak bai, baina naizen hori erabakitzen dutena) sartzeari dakar berekin. Suspertzen gaituen mundu-ikuskera eta bultzatzen gaituen itzaropena alde batera uzten baditugu, publikoari garen onena xixkatzen diogu.

**Hiritartasun berritu batek gizarteko maila guztietako ekintzan eta erabakien hartzean parte hartzeko asmoa du**

3. **Gatazkak hitzaren indarrez konpontzea:** Errealitatea gatazkatia da. Haserrealdi eta desadostasunen artean aurrera egiten du. Hiritartasun heldu batek gatazka elkarrizketarantz bideratzen du. Sentitzeko modu desberdinen artean komunikazioa eta elkar ulertzea jartzen ditu. Hitzaren indarrean

## 3. Hiritartasuna taxutzen dihardugun mailak

Hiritartasuna, beraz, publikoaren eremuari lotu ohi zaio eta gizaki bakoitzarentzako estatutu juridiko bat onartzean (1) eta gizakia kolektibitate jakin bateko kide izatean (2) gauzatu da.



Hala eta guztiz ere, hiritartasunaren ohitura estutuz joan da, hauteskunde-parte hartze hutsarekin parekatu arte. Egoera hau dela eta, hiritartasun kontzeptua guztiz txirotu egin zen. Gure ustez, hau gertatu izan da **hiritartasunaren garapena** ez delako kontuan hartu gizakiaren izatea itxuratzen duten **eremu desberdinetan**. Zer esan nahi dugu hau esaten dugunean? Amartya Sen-en proposamenari jarraitzen gatzaizkiolarik -gizakiaren garapena taxutzeko eremuez ari dena-, hiritartasuna taxutzeko dugun ahalegina hiru eremu edo mailatan egin behar dela uste dugu: (1) maila pertsonala (2) gizarte eta antolaketa-maila eta (3) erakundeen maila. Haietako bakoitzean beharrezkoa da funtsezkotzat jo ditugun osagaiak lantzea: eskubide eta betebeharren arteko oreka, parte hartzea eta gatazken konponbide baketsua. Ikus dezagun orain haietako maila bakoitza.

## Maila pertsonala

Nork bere burua hiritartzat hartzea funtsezko gauza da hiritartasun gogotsua sustatzeko. Honek **norberaren berberatasunaren eta baieztapen pertsonalaren** inguruan lan egitea dakar berekin, kontuan hartuz gizakia dagokion bizi-garapen prozesuan hiritar gisa dela eta taxutzen dela.

**Gizaki oro**, gizaki izateagatik eta eskubide zein betebeharrak edukitzeagatik, hiritar dela adierazten duen premisa horretatik abiatzen gara. Honako hau funtsezko osagaia da hiritartasun berri bat eratzekoan, zeren, egungo egunean, hiritarra izatea eta eskubide batzuk edukitzea estatu batekoa izateari lotuta baitago, eta hau ez dago gizaki guztien eskura (errefuxiatuak, etorkinak, etab.)

Honela, hiritartasun gogotsua eta osoa eratzen duten osagaietako batzuk garatzeko, horretaz ohartu eta gure hiritartasuna maila pertsonalean erabiltzea beharrezkoa dela uste dugu. Beharrezkoa da, beraz, gizakiok:

- Eskubide batzuk, baina baita betebeharrak batzuk, dauzkaten subjektu aktibo bihurtzeko gaitzean (erantzukizuna sustatzea)
- Gure munduko protagonistak sentitu eta izan gaitzean (nork bere burua maitatzea –autoestimua–, konfiantza eta baieztapen pertsonala sustatzea)
- Parte hartzeko zein gatazkarako gaitasunak gara ditzagun, gatazka, hazteko eta mundu konplexuago zein anitzago taxutzeko aukera gisa ulertzen dugula (enpatia, elkarrizketarako gaitasuna eta tolerantzia aktiboa sustatzea)
- Gure bizitzari zentzua ematen dioten esperientzia eta iturburuetan sakon dezagun (gaitasun sinbolikoa sendotzea)

## Gizarte eta antolaketa-maila

Gizakia gizartean hazi eta osotzen da. Ezinezkoa da, beraz, hiritartasunaz mintzatzea eta gizabanakoaren mailaz besterik ez aritzea. Gizakiak gainerakoekin bizitzen garatzen du bere hiritartasuna. Gizarte-mailak *gizakiaren eragiletasuna* azaltzea ahalbidetzen du: gizaki bakoitzak bere hazkundearen eragile eta protagonista izan dadila, benetako giza hazkundeak eskatzen duen legez. Gizakiaren eragiletasunak gizabanakoaren eta taldearen gaitasunak lantzea dakar berekin.

Honek zera adierazten du: gizaki bakoitza bizi den munduko eragile eta, kasu honetan, protagonista, denaren ideia. Eta ideia hau, eskubide zein betebeharrak (bizi den errealitatean jardutera eta konprometitzera bultzatzen dutenak) dauzkan gizaki-hiritartzat hartzeko beharrari lotzen zaio.

Gizarte-mailan hiritartasuna gainerakoekin batera taxutzen da, guztiontzako eskubide zein betebeharrak definitu eta bat jartzean (1), erabakiak hartzean parte hartzeko guneak ahalbidetzean (2), antolatu nahi dugun gizarte ereduaren definizioan parte hartzean (3) eta ezagunak zaizkigun eta partekatzen ditugun ikurrak sortzen laguntzean (4). Eta aurreko guztia, familian, lagunartean, ikasgelan, ikastetxean, auzoan, herrian, hirian...gertatu behar da.

## Erakundeen edo arauen maila

Erakundeen maila “jokoaren arauetz” ari da, hots, egiturazko alderdiez (esaterako, Konstituzioan jasotako eskubideak egotea, edo Giza Eskubideen Itun desberdinei atxikitzea). Honako hau da historian zehar hiritartasun kontzeptuari gehien lotu zaion maila. Maila honetan, berriz, hiritartasun ideia murriztua geratu da, hiritartasuntzat botoaren bidezko hauteskundeetan isladatzen den hiritartasun politikoa hartu delarik.

Hala eta guztiz ere, lehen esaten genuen bezala, guri dagokigun erabaki asko esku hartzerik ez dugun urrutiko guneetan hartzen dela ikusten dugu. Horregatik, hiritartasun gogotsu batek gure bizitzetako dagozkien alderdien gainean eragina izateko gaitasuna eskatzen du.

Protagonismo hau ezin da taxutu aipatu hiru mailak eta hiritartasuna eratzeke eremu desberdinak kontuan hartzen ez badira. Eta taxutze hau eta hiritar gisa dugun eragina izateko gaitasun hau, gizaki eta mugimendu askok agertzen du: bere ikastegiaz arduratzen den hezitzaileak edota “Rioko Gailurrera” joan ziren gizarte-erakundeek; kontsumo arduratsua erabiltzen duen pertsonak edota Txiapasko biztanleak indijanak; irizpide etikoez non inbertitu pentsatzen duen aurreztaileak edota globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduak; boluntario izateko konpromisoa hartzen duen pertsonak edota kanpo-zorra ezeztatzearen aldeko munduko koalizioak, etab.

Gizabanakoaren maila:	Gizabanakoa
Gizarte/antolaketa-maila:	Familian, ikasgelan/ikasleentzako, auzoan/herrian.
Erakundeen maila	Mundu-maila

## 4. Zenbait printzipio hezitzaile<sup>1</sup>

Atal honetan hiritartasun gogotsu eta arduratsua sustatzeko erabili beharreko zenbait jarraibide didaktiko azpimarratu nahi izango genituzke. Printzipio eta ideia orokorrak dira, testuinguru eta egoera bakoitzean zehaztu behar direnak. Guztiak logikoa den zerean inspiratzen dira: *baliabide didaktikoak lortu nahi diren helburuekin bat etorri behar direla*. Nola hezi hiritartasun arduratsua bat izateko? Horra hor elkarrizketarako hainbat iradokizun.

- Garrantzi handikoa da *gizakiaren* alderdi guztiak *osotasunean* lantzea: buru-alderdia, afektibitate-alderdia eta ekintzari dagokion alderdia. *Buru-alderdia*, bizi garen errealitatea kritikaz ulertzeko; *afektibitate-alderdia*, enpatizatzeke gai izateko, besteren lekuan jartzeko gai izateko eta gure izaera eta bizimoduari begirada kritikoa emateko gai izateko; *ekintza*, ikasketak esanguratsuak izan daitezen, gizakion bizitzan garrantzia izan dezaten eta gauza daitezen: eduki teorikoak eta landutako sentimenduak ez dira baliodunak izango ez badira bizitzarako ikasketa bilakatzen.
- *Globalaren (mundu-mailakoa) eta lokalaren (tokikoa) artean*, eta *gizabanakoaren eta egiturazkoaren artean*, etengabeko joan-etorriko bidea egon behar du. Hiritartasun gogotsua taxutzeak mundu-mailako zein egiturazko arazoez ohartzea eta autoestimua edo adierazpentasuna lantzea dakar berekin. Lokalaren gaineko ekintza kolektiboa, gure ingurunea hobetzen duten egitasmoen bidez, proposamen pedagogikoan sartu behar da: ezinezkoa da parte hartzeke ardurak, gauzatzeke biderik gabe sorraraztea.
- Ezaugarri hauek dituen heziketa-prozesu batean ez da zaila ikasleekin, edo irakasleen artean, *gatazkak* sortzea. Hezitzaileen artean “jokaldiaren” ikuskerak desberdinak izan daitezke, eta ikasleak ez omen daude honelako prozesuetara ohituta. Egoera hau gauza onuragarria bezala onartu behar da, eta sormenez erabili, elkarrizketan, ikuspegi desberdinak onartu eta baloratzean, argudio arrazoituak erabiltzeke iaiotasunean, iritzia aldatzeke irekitasunean eta abarretan *hezteko aukera* izan dadila.

**Baliabide didaktikoak lortu nahi diren helburuekin bat etorri behar dira**


<sup>1</sup> Atal hau egiteko Pedro Sáez-en “Desarrollo y Derechos Humanos: retos para la educación” izeneko artikulua eta Miquel Martínez-en “Educación y ciudadanía activa” izeneko artikulua hartu ditugu oinarri.

- Garrantzi handikoa da giro epelak, ulerkorrak, *komunikazioa errazten dutenak*, sor daitezen. Hezitzaileak desakordioak babesten saiatu behar dira. Funtsezkoa da baloreak, arauak edo iritziak jarraibiderik gabe egin daitezen; hau da, azterketa, gogoeta, elkarrizketa, ekintza eta esperientziatik abiatuz egin daitezen.
- Nahitaezkoa da ikastegiko *giroa eta egitura* lehen mailako eragile hezitzaileak direla kontura gaitzen. Honek ikastegiko bizikidetzako arauak zeintzuk diren, agintaritza nola kudeatzen den, heziketa-komunitateko arlo desberdinen partaidetza-maila zein den, gatazkak nola konpontzen diren, pentsarazi eta azterraraziko digu, jakinarazi nahi ditugun baloreekin bat datozen ikustearren.
- *Ahaleginaren balio pedagogikoa*, helburu gisa baino, baliabide gisa berreskuratu beharra dago, garrantzitsua baita, gure bizitzetan zehar, gure eskubideak gainerakoekin bateragarriak egitean sortuko diren eragozpenak onartzen ikas dezagun, eta baita gizaki eta gizarte gisa benetako elkartasuna gauzatzeko onartu beharko ditugun mugak ere. Eskubide bakoitzari dagozkion betebeharrak onartzeak nor bere burua gaintzea eta interes kolektiboa eta guztion ongizatea oztopatzen duten norberearen interesei uko egitea eskatzen digu askotan.
- Azkenik, bikaintasuna izan behar dugu helburu: ezin diogu uko egin gizakien eta gure buruen onena kanporatzeari, hori baita gizarteetako aberastasun-iturririk handiena. Kaskarkeriatik ihes egitea da gizarte-erantzukizuneko eskakizuna eta gainerakoekiko oinarritzko elkartasuneko eskakizuna.

# *Gatazkak modu baketsuan konpontzea*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN



# 1. Gatazkarik gabe ez dago bizitza sozialik

Gure gizartearen eta bertan bizi diren taldeen eta pertsonen artean aniztasun handia dago hainbat alderdiri dagokionez: kultura, bizimodua eta mundua ulertzeko modua, interesak, beharrak, etab. Aniztasun hori aberastasun-iturria da gizartean parte hartzen dugun pertsona guztiontzat. Sarritan, ordea, gatazken iturri ere izaten da.

Noiz esan dezakegu gatazka dagoela? Gatazka sortzen dela esan ohi da pertsona batzuen interesak edo beharrak beste batzuenekin aurre egitean, edo talde batzuenak beste talde batekoenekin edo horietako edozeinen interesak boterea dutenen interesekin aurre egitean. Hori dela eta, *gatazkarik gabe bizitza sozialik ez dagoela* konturatzen gara. Gatazkek funtsezkoak dira gure bizitzan eta bizikidetzan, eta horiek saihestek edo ezkutatzek are gehiago oztokatzen du gatazka horiek konpontzea.

Xedeen deklarazio gisa, dokumentu honetan gatazken konponbidea zalantzan jartzen ez den *bide baketsuaren* premisatik jorratzen da.

Orokorrean, “gatazka” hitzak konnotazio gutxiesgarriak ditu, ziur aski “biolentzia” hitzarekin identifikatu ohi dugulako. Egia da kasu batzuetan gatazkek ez direla gatazkatzat hartzen zuzengabekeria pairatzen duen norbaitek biolentziaren erreakzionatzen ez duen arte. Dena den, biolentzia oro ez da gatazkaren adierazpena, eta gatazka guztiek ez dituzten adierazpen bortitzak sortzen. Azken aukera gisa, biolentzia gatazka ez onartzea dela esan dezakegu, biolentziaren bidez desberdina dena deuseztatu eta bere gizatasunari uko egiten baitzaio, eta irtenbide faltsua ezartzen da indarkeriaz.

Beraz, “biolentzia” eta “gatazka” argi bereiztu behar dira. Gatazkari aurre egiten ez zaionean eta bide baketsutik hura konpontzeko urratsik ematen ez denean, inkomunikazioaren, elkarrekiko mesfidantzaren, beldurraren eta aurreiritzien dinamika abiarazten da, eta, ondorioz, biolentziarekin amaitzen da, taldeen artean eta gizartean batik bat. Izan ere, eta esan ohi den bezala, gerra gizakien buruan hasten da. Biolentziaren muga gaindituz gero, denean iraina eta mendekua nagusitzen da, eta hori etengabeko espiral bihurtzen da, eta irtenbideak aurkitzeko bideak oztokatzen ditu. Gainera, biolentziak hainbat zauri sortzen ditu. Kasurik onenean, zauriak pertsonen duintasunean eta autoestimuan. Kasurik okerrean, biktimen heriotza, eta horientzako ez dago inolako irtenbiderik. Kasu horretan konpondu ezinezko bidegabekeria egiten da.

Hala ere, gatazka interpretatzeko beste modu bat dago: *aukera gisa hartzea, eta ez mehatxu gisa*. Bide baketsuak erabiltzea aukeratzen dugunean (dokumentu honetan premisa hori aplikatzen da) gatazkek eta hura konpontzeko prozesu orok gizarte eta pertsona gisa hazteko aukera ematen digute. Izan ere, transformazio sozialaren eta gure hazkundearen (pertsona heldu gisa) eragile nagusietako bat bezala har dezakegu gatazka.

**Gatazka sortzen dela esan ohi da pertsona batzuen interesak edo beharrak beste batzuenekin aurre egitean edo talde batzuenak beste talde batekoenekin edo horietako edozeinen interesak boterea dutenen interesekin aurre egitean**



Segur aski, guztiok konpondu behar izan ditugu arazoak pertsona batzuekin, eta, horren ondoren, gure arteko harremana sakonagoa eta hobea da, oinarri berrietan oinarritua. Gizartearen arloan ere, gatazkek gure gizarteak hobetzeko eta bizikidetzaren oinarritzko egiturak eraldatzeko aukera ematen dute. Horren adibidetzat langile-klasea jar dezakezu. Klase horrek bizitako gatazka tradizionalak baldintza hobek eta esku-bide sozialak ahalbidetu ditu pertsona guztiontzat. Halaber, mugimendu feministek eta ekologistek bultzatutako errebundikazioek gizon-emakumeen arteko harremanak berdintasunerantz bideratu dituzte eta gure gizarteak ingurumena errespetatzera bultzatu dituzte.

**...aukera gisa hartzea,  
eta ez mehatxu gisa**

Laburbilduz, gatazkek beti daude bizitza pertsonalean eta sozialean presente. Gatazka horiek ez dira saihesti behar –ezinezkoa litzateke–; aitzitik, heldu egin behar zaie modu konstruktiboan eta ez-biolentziaren bidez, giza garapenerako aukera ona osa dezaten: gu geu izateko, harreman hobek izateko eta justizia sozialaren maila altuagoa lortzeko.

**gatazkek beti daude  
bizitza pertsonalean  
eta sozialean presente**

Ordena honi jarraituko diogu: aurrena gatazken zergatiak aztertuko ditugu, ondoren, haiek nola konpondu azalduko dugu, eta, azkenik, gatazkek modu baketsuan konpontzean agertzen diren agertoki berriak ikusiko ditugu.

## 2. Gatazken zergatiak

Gatazkek hainbat eremutan sor daitezke, eta bakoitzak bere berezitasuna izan arren, komunikazioa alderdi nagusia da eremu guztietan. Guk hiru eremu bereiziko ditugu: eremu pertsonala, pertsonen arteko harremanen eremua eta eremu publikoa. Bakoitzari buruz hausnarketa batzuk egin ditugu:

### a) Eremu pertsonala:

Pertsonen arteko gatazkek norbanakoaren errealitatearen eta asmoen arteko tentsiotik eratortzen dira (ez datoz bat beti errealitate horrekin), haiek kontziente izan edo ez.

Gatazka pertsonalak *hazkunde-garaietan* sortzen dira batik bat, eta aldaketarekiko barne-erresistentzia dakarte beraiekin. Sarritan, haurtzaroko egoera batera itzultzeko nahia nagusitzen da. Egoera hori kaskarragoa baina babestuagoa izaten da.

*Erakartzen gaituzten atxikimenduak daudenean* ere sortzen dira gatazka pertsonalak, horiek degradazio pertsonalera bideratu arren. Gatazka horiek erabakiak hartzeko unean eta aldaketak gertatzen direnean agertzen dira –edonolakoa dela ere aldaketa–. Aldaketak barneko oztopoak izaten ditu beti.

*Bizitza oso baterako nahiak hazten direnean* ere gatazkek sortzen dira. Zentzu horretan, subjektibitate- eta kontzientziazio-maila handia du gatazkek. Zenbat eta kontzientziazio gehiago, orduan eta nahi handiagoak, eta barne-gatazkek ere orduan eta handiagoak dira.

Beste modu batera esanda, gure ibilbide bibliografikoan hainbat gatazkaren lekuko gara. Gutako bakoitza gatazken historia pertsonalaren emaitza garelako esan genezake. Gatazkarik gabe ez genuke inoiz heldutasun- eta gizatasun-mailarik lortuko.



## b) Pertsonen arteko harremanak:

Gizakiok besteon beharra dugu norberaren behar jakin batzuk betetzeko. Hori da egiturari dagokionez sozialak izatearen ondorioetako bat. Besteekiko behar horren eta behar horren kudeaketaren ondorioz sor daitezke pertsonen arteko gatazkak. Izan ere, pertsonen arteko harremanetan onartze-ko eta baloratzeko, edukitzeko edo boterea izateko *oinarrizko beharrak ez betetzeagatik* sortzen dira gatazkak.

- Nire erreklamazioaren *zilegitasuna* bultzatzen edo errefusatzen duen *objektibitate* bat badago. Adibidez, emakume batek gaixo dagoenean zaintzeko eska diezaioke senarrari, baina ezin dio hori eskatu bizilagunari. Gainera, baliteke bizilagunarekin gaizki sentitzea hark ez badu onartzen zaintzea; liskarra ere eduki dezakete, baina auzotasunak ez dakar gaixoak zaintzeko betebeharra. Horregatik, pertsonen arteko gatazkak konpontzeko, beharrezkoa da aldatu ezin den errealtatea onartzea. Hau da, gatazka batzuk pertsona batek gehiegi eskatzen duenean sortzen dira.
- Besteek norberaren beharrak ez betetzearen sentimendua *subjektiboa* da. Zentzu horretan, pertsona batzuk zorrotzagoak dira (norberarekin edo besteekin) eta gatazka gehiago sortzen dituzte beren ingurunean. Hau da, gatazka batzuk pertsona batek gehiegi eskatzen duenean sortzen dira.

Batzuetan, gatazkak ezkutuan egoten dira denbora luzean. Hau da, batzuetan beharrezko baldintzak biltzen dira gatazkak azaleratzeko, baina ez dira agertzen kontzientziarik ez dagoelako. Izan ere, *beharrezkoa da* gatazkak eragindako pertsonak *errealitateaz jabetzea*, gatazka bera hauteman ahal izateko.

Pertsonen arteko gatazka batzuk hobeto interpreta daitezke belaunaldien arteko ikuspuntutik. Hau da, *gatazka* batzuk *belaunaldien artekoak* dira, eta egoeren aurrean ikusteko, kokatzeko eta erreakzionatzeko moduetatik datoz. Modu horiek erabiltzera adinak eta partekatzen dugun historiak bultzatu gaituzte. Belaunaldien artean sarritan egoten dira gaizkiulertuak eta ulertu ezina, eta azkenean gatazkak sortzen dira.

## c) Eremu soziala:

Harreman sozial publikoak *botere-harremanen* barnean sartzen dira. Arlo ekonomikoa, politikoa, nor-tasunak eta ikurrak, generoa eta beste hainbat alderdi hartzen dituzte beren baitan.

Botere-harremanak bidezkoak edo bidegabeak izan daitezke. Kasu horretan gatazkak sortzen dira, besteak beste, *botere-harremanetan baldintza bidegabeak daudenean*. Bidegabekeria harreman horiek kudeatzeko *modutik* edo *boterea duen pertsonaren legitimotasun ezetik* (edo bere atribuzioak neurritz kanpo erabiltzeagatik) edo *status quo* hori sortu duen *historiatik* erator daiteke.

Arlo publikoan ere beharrezkoa da *kontzientziazio-prozesua* gatazka hauteman ahal izateko. Bestela, hor egon arren, ezkutatuta egoten da.

Bidegabekeria-egoerak oso zaurgarriak direnean eta asko luzatzen direnean, *biolentzia-egintzak* egon daitezke, bat-batekoak edo antolatuak. Muturreko kasuan, boterea dutenek biolentzia hori gatazka bakar gisa identifikatzen saiatuko dira. Zapalduak, berriz, biolentzia zapaltze-egoerari aurre egiteko ezinbesteko erantzun gisa erabiliko dute. Benetan, gatazka handitu eta konplikatu egin da, eta irtenbideak ere konplexuagoak izango dira. Abiarazten den biolentziaren espiralean, bai batzuk eta bai besteak galtzen irteten dira, erantzukizunak desberdinak izan arren, eta ondorioak ere ez dituzte modu berean pairatzen guztiek.

### 3. Nola konpon ditzakegu gatazkak?

Gatazkak gure eguneroko bizitzako beste elementu bat diren arren, ezinbestekoa da haiei heltzea norberaren hazkundearen, besteekiko harreman onaren edo elkarte, zentro edo proiektu baten martxaren oztopo bihurtu baino lehen.

Taldeen gatazka askok osagarri pertsonala dutela onartzen dugu, eta bereizketa hori egitea ez da erraza. Beharrezkoa izango da elementu bakoitza espezifikoki eta modu ezberdin batean aztertzea.

Atal honetan, arazoa dagoela onartzen den gatazkak eta gatazka horrek eragiten dien aldean identifikazioa aztertuko ditugu.

Ondoren, arazoak konpontzeko funtsezko ideia batzuk aurkeztuko ditugu. Hasteko aurretiko beharrezko baldintzak aipatuko ditugu, ondoren gatazkei aurre egiten lagunduko diguten trebetasunak eta jarrerak zehaztuko ditugu, eta amaitzeko gatazkak konpontzeko mekanismo erabilgarri batzuk aipatuko ditugu.

#### 3.1. Gatazkak konpontzeko aurretiko beharrezko baldintzak

Krisi edo gatazka bati, pertsonala, taldekoa edo soziala dela ere, aurre egiteko beharrezko minimo batzuk daude. Gatazka konpontzen hasi aurretik, minimo horiek bete behar ditugu. Horiei buruzko akordiorik ez badago, zaila izango da gatazkari aurre egitea. Hain zuzen, beharrezko minimo horiei deitzen diegu gatazka konpontzeko aurretiko baldintzak:

- **Gatazka dagoela onartzea:** pertsonalki zein sozialki, hainbat kasutan ezinezkoa da zerbait egitea arazoa dagoela onartzen ez den bitartean. Zentzu horretan, beharrezkoa da gatazkak eragindako pertsonak arazo bat duela onartzea (adibidez, drogekin) edo taldeak pertsona batekin arazoak dituela onartzea, etab. Beraz, minimo bat zerbait behar bezala ez dabilela onartzea da.
- **Gatazkak nori eragiten dion identifikatu behar da.** Askotan honako hau esaten dugu: “arazoa besteak dauka”. Beste batzuetan, berriz, taldeko gatazkak ikusten saiatzen gara berez pertsonalak direnean. Adibidez, futbol-talde batzuk elkarrekin ez dira ondo konpontzen lehendakariak ez direlako ondo konpontzen; arazoa ez da jarraitzaileena. Horregatik, oso garrantzitsua da gatazkak zein alde-ri eragiten dien eta alde horiek zein eragin duten identifikatzea.
- **Elkarrizketarako borondatea eduki behar da,** hau da, arazoari aurre egiteko gogoia elkarri entzunez eta akordioak lortuz. Elkarrizketa alderdi hauek onartzearen adierazlea da: besteak onartzea, haien duintasuna eta beste modu batera pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko eskubidea.
- **Irtenbidea aurkitzeko gogoia eduki behar dute** pertsona guztiek. Oraindik ez badakigu zein izan daitekeen irtenbidea edo alde bakoitzak bere proposamenetik hurbilen dagoen irtenbidearen alde egiten badu ere, “eseri, hitz egin eta irtenbideak bilatzeko” borondatea eduki behar da.

Kasu gehienetan, aurretiko baldintza horiek ez dira betetzen besterik gabe. Horretarako, lan egin behar da gatazkak konpontzeko prozesuan. Dena den, hori horrela ez balitz, baliteke bidegabekiaren egoera luzatzea eta arazoa konpontzea ezinezkoa izatea.



### 3.2. Trebetasunak eta jarrerak

Trebetasunak eta jarrerak bizitzari aurre egiteko ditugun gaitasunak eta jokabideak dira, eta bizi garen bitartean landu ditzakegu. Bizitzan zehar, jarrera eta trebetasun batzuk garatzen eta sustatzen ditugu, gure bizitzako ikasketen arabera. Gatazkak konpontzeko jarrera edo trebetasun bat zuzena izan bada, ezinbesteko baliabide bilakatzen da pertsonarentzat. Adibidez, irakasle batek agintegatazka konpontzeko ikasle bat kalera bidali badu eta erantzuna ona izan dela iruditu bazaio, segur aski, irtenbide hori errepikatu egingo du beste batean. Aldiz, etxeko lanak banatzeari buruz familiar irtenbide bat adostu bada, alternatiba posiblea izan daiteke beste gatazka batzuetarako. Horrek guztiak esan nahi du *gatazka aukera bihurtzen lagunduko diguten jarrera eta trebetasun batzuk ikasi eta gara daitezkeela*. Halaber, azpimarratzea komeni da *ikas-keta hori lortzeko modurik onena eguneroko bizitzan praktikan jartzea dela*.

Gaitasun eta jarrera horiei buruzko hainbat liburu eta artikulu daude gai desberdinen gainean: autolaguntza, norberaren ezagutza, talde-lana... baita izaera zabalagoko gatazkei (eskualdeko, nazioarteko, munduko gatazkak) eta gatazka tematiko espezifikoei buruzkoak ere (ingurumen-gatazkak, kulturalak, politikoak, ekonomikoak...). Bibliografia horretatik gure ustez funtsezkoak diren trebetasunak eta jarrerak hartu ditugu (horietako asko komunikazioarekin lotutako gaitasunak dira):

- **Beste pertsona bat den bezala onartzeko gaitasuna:** bere egoerak, kezkek, nahiak, beldurrak, interesak eta abar dituen gizakia, eta bereziki, sentimenduak dituena. Pertsona bakarra eta ezin hobeia. Hitz batean, gizaki bat “sentikor-pentsalari” gisa onartzean datza.
- **Enpatia:** pertsona den bezala onartzeak bere tokia jartzera bultzatzen nau. Horrela, bere errealitatea, bere motibazioak, beldurrak eta interesak uler ditzaket, eta bere sentimenduak ulertzen saiatzen naiz. Alderdi horiek guztiak errespetatu behar ditut, haiekin ados ez egon arren.
- **Entzuteko gaitasuna:** beste pertsonari aditzen ikastea; aditzea ez da entzutea bakarrik. ikuspegi irekiarekin eta ahalik eta arreta gehienarekin entzutea da. Esan behar didan guztia badakidala uste badut, ez naiz ohartuko komunikatu nahi dizkidan gauza askotaz.
- **Asertibitatea:** entzuteko gaitasunak asertibitatea ere eskatzen du. Elkarrizketa batean, negoziazio batean edo pertsona bakoitzaren bizitzan alde batera utzi ezin daitezkeen/behar ez diren gutxieneko irizpide batzuk daude. Zentzu horretan, beharrezkoa da pertsona bakoitzak pentsatzen duena, sentitzen duena eta ezinbestekoa dela iruditzen zaiona errespetuz eta argitasunez adierazteko gaitasuna garatzea.
- **Uko egiteko gaitasuna:** beste pertsonari ulertzeak, bere lekuan jartzeak, hark eragiten uzteak gure jarrerak aldatzea ekar lezake. Horrela, pribilegio batzuei uko egin diezaiekegu guztien onerako egoera alternatibo baten alde egiteko. Zentzu horretan, ez zaie heldu behar norberaren jarrerei gatazkarren muinean dauden beharrak eta interesak aurkitzen saiatzeko.

**Gatazka aukera bihurtzen lagunduko diguten jarrera eta trebetasun batzuk ikasi eta gara daitezkeela. Halaber, azpimarratzea komeni da ikasketa hori lortzeko modurik onena eguneroko bizitzan praktikan jartzea dela**

- **Adostasuna lortzeko gaitasuna**, alde guztien onerako etorkizun berri bat sortuko duten aukerak bilatu ahal izateko.
- **Sormena**: kasu bakoitzarentzat hainbat irtenbide imajinatzeko gaitasuna, ezagutzen dugunean, egingdakoan edo beste kasu batean arrakastatsua izan zenean mugatu edo autozentsuratu gabe. Gatazkak eragiten dien pertsona edo kolektiboentzako irtenbide eta proposamen egokiak pentsatzeko gaitasuna da.
- **Harreman berriak sortzea**: gatazkek eta krisiek hazten eta gure burua hobetzen laguntzen digute. Bai krisi pertsonaletan, bai sozialetan, ikasketa eta aldaketa bat sortzen dugu. Gatazka pertsonalen bat arrakastaz gainditzen badugu, “ni” desberdina sortzen dugu: helduagoa, segurtasun gehiago duena... Gauza bera gertatzen da taldeetan edo gizarte mailan. Gatazkak edo krisiak gainditzean, agertoki berriak eta beste pertsonekin harremanak izateko modu berriak sortzen dira. Hala ere, bistakoa da alderdi hau dela denbora gehien behar duena, eta sortzen diren harreman berriak lehenik zeudenen oso desberdinak izan daitezkeela.

Jarrera eta trebetasun horiek duten garrantziagatik bizitza osoan landu behar genituzke. Gaitasun horiek ikasteak krisiak saihestea edo konpontzea erraz diezaguke agertzen diren unetik, iraunkor bihurtu baino lehen, kasu horretan gatazka gainditzea oso zaila baita.

### 3.3. Gatazkak konpontzeko metodologiak edo tresnak

Gatazkak konpontzeko hainbat metodologia edo tresna daude:

- **Gatazkaren autogestioa**: kasu honetan, gatazka aldean artean kudeatzen da. Alde bakoitzak bere jarrera, beharrak eta interesak adierazten ditu, eta elkarrizketa eta akordioaren bidez pertsona guztientzako aukera egokia lortzen da. Konponbide-mota honen adibideak gure eguneroko bizitzan ditugu: familian, lagunekin, etab.
- **Arbitrajea**: arbitrajea prozedura bat da, eta, horren bidez, aldeek adostuta, desadostasun bat arbitro baten edo hainbat arbitroz osatutako tribunal baten eskuetan jartzen da, eta horiek aldeek bete beharreko erabakia hartzen dute. Arbitrajearen adibide batzuk ezagutzen ditugu: kirolean, kontsumitzaileen elkarteetan, etab.
- **Bitartekotza**: bitartekotza –adiskidetzea ere deitzen zaio– prozedura bat da. Eztabaida batean, aldeek eskatuta, bitartekaritzaren bidez bitarteko neutral batek –bitartekaria– guztientzako egokia den irtenbidea bilatzen laguntzen du. Bitartekariak ez du ahalmenik aldeei erabaki bat hartzera behartzeko. Bitartekaritza borondatezkoa da, hau da, aldeetako batek, hala erabakitzen badu, adostutako irtenbidea sinatu baino lehen utz dezake prozesua. Prozesu hau banantze-kasuetan, gatazka kulturaletan eta abarretan erabiltzen da.
- **Negoiazioa**: negoziazioa zuzenean bi aldean artean egiten den prozesua da, hirugarrenen laguntzarik gabe eta aurrez eztabaidatu gabe. Gatazkak konpontzeko mekanismo hau borondatezkoa da. Gizarte mailako adibideak ezagutzen ditugu; esaterako, sindikatuen eta patronalen artean edo nazioarteko gatazken kasuan, negoziazio-maila espezifikoak proposatzen direnean.

Eskola mailan, lehen tokian autogestioa gomendatzen dugu, eta hori nahikoa ez den kasuan bitartekotza, alde guztientzako egokiena izan daitekeen konponbide- eta ikasketa-metodologia baita. Izan ere,



ikastetxe batzuetan eskola-bitartekaria, kulturen arteko bitartekaria, eta abar ezagutzen ditugu, eta gizarte-hezkuntzako arloaren hainbat eremutan lan oso interesgarria egiten ari dira gatazkak saihesteari eta konpontzeari dagokionez.

## 4. Agertoki berriak, aukera berriak

Dokumentuaren hasieran esan dugun bezala, gatazka bizitza sozialaren funtsezko elementua da, eta guk hura konpontzeko indarkeriarik gabeko bideak aukeratu ditugu. Gatazka bat konpontzeak ez du esan nahi ondoren ez direla azaleratuko ezkutuan zeuden beste batzuk. Gainera, gure bizitza sozialean, familian edo eskolan batzuetan ez da lortzen gatazka bat erabat konpontzea, eta pertsonen eta taldeen beharren eta nahien artean oreka bat lortzearekin konformatu behar dugu, eta beti ez da guk nahi bezain egonkorra.


Hala ere, gatazkaren muinera iristen garenean, eta konponketa-prozesua errotik hasten dugunean, bizikidetzarako oinarri berriak finkatzen hasten gara. Lortzen dugun egoera ez da gatazka sortu baino lehen zegoenaren berdina; aitzitik,, agertoki desberdina eta hobe estreinatzen dugu. Agertoki berri bat irekitzen duen gizarte edo giza harremanak ditugu, eta horren ezaugarriak hauek dira:

- Gure gizatasuna handitzea, trebetasunen bidez, munduaren ikuspegiaren bidez, irekieraren bidez, nire egia erlatibizatuz eta nire ahultasunak onartuz.
- Segur aski *gutxieneko adostasuna eta egoeraren ikuspegi partekatua* lortuko dugu taldeen eta pertsonen artean. Adostutako gutxieneko horiek aurrerantzean sortuko dugun gizartearen edo harremanen oinarri berriak izango dira.
- Denok onartu behar izango dugu, neurri batean, besteen ikuspegia, eta gure “egia” erlatibizatu beharko dugu. Horrela, errealitatearen “argazki” berria –lehen genuena baino osoagoa– sortzeko ibilbidea elkarrekin egingo dugu.
- Puskatu edo ahuldu zitezkeen harreman asko indartu egingo dira. Harremanak berritu eta sendotu egingo dira. Aniztasunaren aberastasunaz gozaraziko diguten zubiak berriz eraikiko dira, lehenengo aldia balitz bezala.
- Zauriak egon baziren, sendatzen hasiko dira, eta pairatu zituzten pertsonak konpentsatu eta onartu egingo dituzte. Adiskidetze-prozesuan, bizitza sozialaren mugak onartzen ikasiko dugu, baina eman dugun urratsa gogortzen duen desilusioan erori gabe. Kasu horretan, barkamena azaleratuko da. Hori, ordea, ez da ahaztearen sinonimoa, oroimena barnean berritzearena baizik.
- Pertsona, talde eta gizarte gisa ikasketa bat lortuko dugu; esperientzia eskuratuko dugu, eta horrek etorkizuneko gatazkei positiboki aurre egiten lagunduko digu. Eta, noski, oztopo bat gainditzearen ondorioz, poza eta gogobetetzea sentituko ditugu.

# Aurkezpena



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN



Karpeta honetan lehen hezkuntzarako joko bat dator, eta, jokoaren bidez, gatazkak modu baketsuan konpontzen ikastea du helburu. Material honek, fitxetan agertzen diren proposamenetan oinarriturik, balioak eta hausnarketa-jarrerak, enpatia, elkarrizketa, komunikazioa eta beste hainbat alderdi sustatzeko aukera ematen du. Proposatzen diren probetz eta haien bidez sustatzen diren balio eta jarrerez gain, joko honek badu beste balio pedagogiko bat ere: jokoa amaitu ondoren sor daitekeen hausnarketa.

Jokoa bera herritartasunaren kontzeptua lantzen duen hezkuntza-proiektu baten zatia da. Proiektu horretan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: *eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak modu baketsuan konpontzea.*

Gai horiek lantzeko, material hauek eskaintzen dira: **karpeta pedagogikoak hezkuntza-maila bakoitzarentzat, bideoa eta ekintzen gida, girotze-posterrak, ikastetxeen arteko proposamena egunkari birtuala eta joko bat egiteko.** Zehazki, orain aurkezten duguna proiektuaren hirugarren urteari dagokiona da, eta, gainerako hezkuntza-materialekin batera, gatazkak bideratzeari buruzko gaia lantzea du helburu lau **premisatan** oinarrituta:

- Gatazkak gure bizitzaren eta gure bizikidetzaren zati dira. Ez dago bizitza sozialik gatazkarik gabe.
- Biolentzia oro ez da gatazkaren adierazpena, eta gatazka guztiek ez dute biolentzia sortzen.
- Herri heldu batek gatazka elkarrizketarantz bideratzen du.
- Gatazka, gainera, gatazka horrek eragiten dien pertsonak hazteko aukera bat izan daiteke, betiere, bide baketsuen bidez kudeatzen jakinez gero.

Hezkuntza-proiektu honi buruzko informaziorik ez baduzu, edo informazio gehiago lortu nahi baduzu, jarri harremanetan ALBOANekin.

Informazio gehiago lortzeko:

Funikular plaza, 2 - 2 • 48007 Bilbo • [alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org) • Tel.: 94 415 11 35

Bergamin kalea, 32 • 31004 Iruñea • [alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org) • Tel.: 948 23 13 02

Erronda kalea, 7 - 4. I • 20001 Donostia • [alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org) • Tel.: 943 32 02 67

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)



Aurkezpena

## Abiapuntua

Proposamen hau munduari bira eman zion posta elektronikoko mezu batean oinarriturik dago. 2001eko martxoan, Nakano Hiromi andreak –1997ra arte Munduko Bankuko aholkulari gisa aritu zen lanean Washington D.C.n– “*Herrixka globala*” deituriko mezua jaso zuen, eta sarean jarri eta mundu osora zabaldu aurretik, japonierara itzuli zuen.

*Hona hemen testu osoa:*

Pentsa ezazu gaur ez duzula zortetik izan;  
testu hau irakurtzean, errealitatea, agian, beste modu batera ikusiko duzu.

Jo dezagun mundua 100 pertsonako herrixka batera murriztu dugula, gizateriari buruz dauden datu estatistikoak zehazki errespetatuz. Nolakoa izango litzateke?

Herrixka horretako biztanleak hauek izango lirateke:

57 asiarrak,  
21 europarrak,  
14 amerikarrak, Hego eta Ipar hemisferioetakoak, eta  
8 afrikarrak

horietatik 52 emakumezkoak izango lirateke eta  
48 gizonezkoak.

70 kolorezkoak eta  
30 zurizkoak.

70ek kristautasuna ez den erlijio batekoak izango lirateke eta  
gainerako 30ak kristauak izango lirateke.

89 heterosexualak izango lirateke eta  
11 homosexualak.

6k munduko aberastasunaren %59 izango lukete,  
eta 6 horiek Estatu Batuetako hiritarrak izango lirateke.

80 egoera onartezinean biziko lirateke,  
70ek ez lukete irakurtzen jakingo  
50ek desnutrizioa pairatuko lukete,



1 hilzorian egongo litzateke eta  
1 jaiotzeko zorian  
1ek (bai, batek bakarrik) unibertsitatean ikasiko luke,  
eta bakar batek izango luke ordenagailua.

Mundua eskala horretara murriztuta dagoela kontuan hartzen badugu, nahitaez onartu beharra daukagu besteak diren bezalakoak direla eta ulertu behar ditugu beren desberdintasun eta guzti, betiere, errealitate horretaz jabetzeko hezkuntza-premia handiagoa behar dela ahaztu gabe. Baina har dezagun kontuan beste hau ere:

Gaur goizean begiak irekitzean osasun ona duzula esan ahal izan baduzu, aste honetan hilko diren milioi bat pertsonak baino zorte hobea duzu.

Gerraren arriskua, bakardadea eta kartzelaratzearen oinazea eta gosearen orbana ezagutzen ez badituzu, munduko 500 milioi pertsonak baino zorte hobea duzu.

Jazarria, kartzelaratua, torturatua edo eraila izateko beldurrik gabe profesia badezakezu zure sinismena, munduko hiru milioi pertsonak baino zorte hobea duzu.

Hozkailuan janaria, janzteko arropa, etxea eta lo egiteko tokia badituzu, munduko pertsonen %75ek ezagutzen ez duten gehiegizko gizarte batean bizi zara.

Bankuan dirua gordeta, diru-zorroan dirua edo etxeko tiradera batean txanpon batzuk badituzu, munduko aberatsenak diren %8aren barnean zaude.

Zure gurasoak bizirik badaude eta oraindik batera bazaude, benetan apartekoa da...

Mezu hau irakur badezakezu, are zorionekoagoa zara. Hau da, mezu hau bidaltzean, norbaitek zugan pentsatu duela esan nahi du, eta irakurtzen ez dakiten bi mila milioi pertsonak baino zorte hobea duzula.

Norbaitek hau esan zuen behin:  
"Ematen duguna beti etortzen zaigu bueltan".

Beraz,  
gozatu lanean, diruak garrantzirik ez balu bezala,  
maitatu besteak, inoiz zauritua izan ez bazina bezala,  
egin dantza, inor begira ez balego bezala,  
abestu, inork entzungo ez balizu bezala,  
bizi, mundua paradisia balitz bezala.  
Bidali mezu hau lagun bati. Alaitu iezaiozu eguna.



## Karpeta hau osatzen duten elementuak

### Esku artean duzun karpeta elementu hauek osatzen dute:

- Munduko hiritarrok proiektuari buruzko dokumentu berri-emailea.
- Gatazkak bideratzeari buruzko dokumentua.
- Jokoari buruzko dokumentua.
- Hezkuntza-zikloa banatutako ekintzen proposamena:
  - 11 proposamen lehen hezkuntzako lehen ziklorako.
  - 13 proposamen lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetarako.
- Laminak irudiekin\*.

## Nola jolastu

Proposamen honen helburu nagusia da kontatzen den istorioan zehar (hari gidari gisa erabiltzen dena) ager-tzen diren arazoak aztertzea eta konpontzea

Jokoak bi proposamen egiten ditu parte-hartzaileen adinaren arabera. Lehen hezkuntzako lehen ziklorako oso proposamen erraz bat eta bigarren eta hirugarren ziklorako beste bat proposatu ditugu guk. Hala ere, irakas-learen esku uzten dugu proposamen bat edo bestea, edo biak nahasita, aplikatzea taldearen ezaugarrien ara-bera.

Jokoa erabilera anitzekoa denez, hainbat modutan aplikatzeko aukera ematen du. Alde batetik, parte-har-tzaileek probak irakurri eta beren erara egin ditzakete, edo, bestela, irakasleak eman ditzake probak egiteko zehaztutako jarraibideak. Guk taldean jolastea gomendatzen dugu, taldeak egiten duen ekarpenagatik eta, hala, arazo berriak sor daitezkeelako erabakiak hartzean edo elkarrizketan, baina bakarka edo bi moduak txandakatuz ere jolas daiteke.

Parte-hartzaileek –edo taldeak– fitxetan deskribatutako probak irakurri eta mezuak deszifratu beharko dituzte edo haietan proposatzen dena lortzen saiatu beharko dute. Lehen hezkuntzako lehen zikloari dagozkion pro-

---

\* Munduko mapa adierazteko orduan, marrazkietan, Mercator-en ohiko proiektzioa erabili dugu, ikasleentzat ezagunagoa baita. Hala ere, Peters-en proiektzioa gomendatzen dugu. Gure egoitzetan doainik eskura dezakezue Peters-en euskarazko bertsioa.



posamenak margotzekoak dira batik bat; horregatik, fitxa bakoitza lotuta dago aurkezten den agertokia ilustratzen duen laminarekin.

Ziklorik baxuenetan, egunean fitxa bat eta hark irudikatzen duena landu daiteke:

- ezagutzen dutenari buruz galdetuz,
- ulertzen ez dutena azalduz,
- azaltzen diren datuek edo egoerek sor diezazkieketen sentimenduen gainean hitz eginez,
- egoera hori beren ingurunean gerta ez dadin, eguneroko bizimoduan egin dezaketinari buruz hausnarketa eginaraziz.

Helduagoekin, hainbat fitxa landu daitezke egun berean arazorik gabe.

Jokoa amaitutakoan, galdera orokor batzuk egin daitezke landutako guztia eta jokalarien iritzia biltzeko, adibidez:


- Zer gustatu zaizu gehien jokoan?
- Zer harritu zaitu gehien?
- Zer ikasi duzu jolastuz?
- Nola sentituko zinateke... bazina?
- Zer egin dezakezu?
- Zer pentsatuko zenuke... bazina?
- Jokoa landutako guztiaren ondoren, zein ideia emango zenituzke gatazkak bideratzeko?



*Fitxak*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Jokoa hasi da

Orain dela urte batzuk, emakume batek mezu elektronikoa bat jaso zuen. Hark jende gehiagori bidali zien. Beste hainbatek gauza bera egin zuen, eta hala, mezuak munduari bira eman dio. Mezu horretan azaltzen da mundua nolakoa izango litzatekeen bertan 100 pertsona bakarrik biziko balira, betiere, arraza, genero eta abarren proportzioak mantenduz.


Normala den bezala, mezua hainbat eskutatik pasatu ondoren, bere edukia aldatuz joan da. Gauza batzuk gehitu eta beste batzuk kendu egin dira. Guk ere zertxobait aldatu dugu, eta munduan 10 pertsona soilik biziko bagina, nolakoa izango litzatekeen pentsatu dugu. Zenbat gizonezko eta emakumezko egongo ginateke? Zenbat haur eta heldu? Zenbat aberats eta behartsu?

Jakin nahi baduzu... joko bat proposatzen dizugu.

## I. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Munduan sei mila eta hirurehun milioi biztanle bizi dira. Imajina ditzakezu 6.300.000.000 biztanle horiek? Puntu batzuk marraz ditzakezu, 6.300 milioi pertsona horien burua edo bihotza balira bezala.

Baina, zein itxura izango luke 100 pertsona balira? Margo ezazu orain...  1.2.

Eta 10 pertsona balira? Marraz itzazu 10 pertsona horiek beren ezaugarrien arabera. 10 pertsona horietatik

- 5 gizonezkoak izango lirateke
- 3 haurrak
- 5 emakumezkoak
- 7 helduak

Margo ezazu marrazkia orain.

 1.3.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Gaur egun, munduan sei mila eta hirurehun milioi biztanle daude. Imajina ditzakezu 6.300.000.000 biztanle horiek? 6.300 milioi pertsona horien burua edo bihotza irudikatzen duten puntuak marraz ditzakezu.

Baina, zein itxura izango luke 100 pertsona balira? Marraz ezazu orain...

Eta 10 pertsona balira? Marraztu datu hauek kontuan hartuz:

- 5 gizonezkoak izango lirateke.
- 3 haurrak.
- 5 emakumezkoak.
- 7 helduak.

 1.4.

## 2. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

10 pertsona horietatik...

2.1.

- 6 Asiakoak izango lirateke.
- 1 Afrikakoa.
- 1 Latinoamerikakoa.
- 1 Europakoa.
- 1 Ozeaniakoa.

Ebaki itzazu marrazkiko pertsonak, itsatsi mapan eta, gero, margotu dena.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Nongoak dira 10 pertsona horiek? Saiatu ondorengo esaldiak deszifratzen; gero, osatu marrazkia eta pin-tatu pertsonak behar bezala karakterizatuz; eta azkenik, koka itzazu munduko mapan.

2.2.

"ies kaokaisA ognazi eketaril"  
"tab aokakirfA"  
"tab aokakiremaonitaL"  
"tab aokaporuE"  
"tab aokainaezO"

Erantzuna:  
6 Asiakoak izango lirateke  
1 Afrikakoa  
1 Latinoamerikakoa  
1 Europakoa  
1 Ozeaniakoa

## 3. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Hamar pertsona horietako bakoitzak sinesmen bat izango luke:

- 3 kristauak izango lirateke.
- 2 musulmanak.
- 1 hindua.
- 3 beste erlijio batekoak edo erlijiorik gabekoak izango lirateke.
- batek zuhaitzek, harriek, naturak arima dutela sinistuko luke.

3.1.

Behatzen margoekin marraz daiteke.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Hamar pertsona horietako bakoitzak sinesmen bat izango luke:

#### Asma ezazu zuk aurrena!!

Pertsona bakoitza zein erlijiotakoa izango litzatekeen jakiteko, marraztutako gauza bakoitzaren inisiala jarri behar duzu, eta gero, poster bat egin behar duzu, beste pertsona batzuek ere jakin dezaten.

Eta horrez gain...

3.3.

3 beste erlijio batekoak edo erlijiorik gabekoak izango lirateke.  
Batek zuhaitzek, harriek, naturak arima dutela sinistuko luke.





## 4. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Pertsona horiek ez lukete elkar ulertuko oso erraz, ez bailukete hizkuntza bera hitz egingo:

2 pertsonak **txineraz** hitz egingo lukete.

Batek **ingelesez**.

Batek **hindiz** eta **urduz**.

Batek **gaztelaniaz**.

Batek **errusieraz**.

Gainerakoek bengalera, portugesa, indonesiera, japoniera, alemana, frantsesa eta beste hizkuntza batzuk hitz egingo lituzkete.

Zer bururatzin zaizu pertsona horiek guztiak beren artean ulertu ahal izateko?

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Pertsona horiek ez lukete elkar ulertuko oso erraz, ez bailukete hizkuntza bera hitz egingo.

Hizkuntzaren ordeztu zenbakiak erabiliko ditugu pertsona horiek zein hizkuntza hitz egingo luketen jakiteko.

1 zenbakiak 'a' ordeztuko balu, eta...

1.- a	6.- e	11.- j	16.- n	21.- r	26.- w
2.- b	7.- f	12.- k	17.- ñ	22.- s	27.- x
3.- c	8.- g	13.- l	18.- o	23.- t	28.- y
4.- ch	9.- h	14.- ll	19.- p	24.- u	29.- z
5.- d	10.- i	15.- m	20.- q	25.- v	

2 pertsonak 23, 27, 10, 16, 6, 21, 1, 29

batek 10, 16, 8, 6, 13, 6, 22, 6, 29

batek 9, 10, 16, 5, 10, 29, 6, 23, 1, 24, 21, 5, 24, 29

batek 8, 1, 29, 23, 6, 13, 1, 16, 10, 1, 29

batek 6, 21, 21, 24, 22, 10, 6, 21, 1, 29

Gainerakoek bengalera, portugesa, indonesiera, japoniera, alemana, frantsesa eta beste hizkuntza batzuk hitz egingo lituzkete.

Komunikatzeko beste zein bide izango liriteke beharrezkoak eta posibleak elkar ulertzeko? Marraztu zure proposamenak.

## 5. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Orain arte ikusi dugun guztiaren arabera, biztanleria oso bestelakoa izango litzateke, ezta?

Zure ustez, zer izango litzateke garrantzitsua?

Gainerako pertsona guztiak ulertzen eta diren bezalakoak direla onartzen ikastea, edo bakoitza bere aldetik bizitzea...

Margotu eta ebaki egokiena iruditzen zaizun irudia.

✍ 5.1.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Orain arte ikusi dugun guztiaren arabera, argi dago biztanleria oso bestelakoa izango litzatekeela, eta horrek gatazkak sorraraz ditzake.

Zer egin beharko litzateke gatazkak saihesteko edo konpontzeko?

Zehaztu denen arten zer egin beharko litzatekeen, eta irudikatu marrazki edo horma-irudi batean.

## 6. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Margotu 10 pertsona horiek kolore desberdineko setazko paperarekin egindako bolatxo bidez, ezaugarri hauek kontuan hartuta:

2 gizenegiak dira.

Bik desnutritzioa dute; hau da, beti gauza bera jaten dute, eta hori osasunerako kaltegarria da.

Batek gosea pasatzen du.

5 normalak dira.

✍ 6.1.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Itzul gaitezen errealitatea deskribatzera.

Hamar pertsona horiek guztiek ez dute bizi-kalitate duina. Horietako bostek indartsu hazteko behar adina eta denetik jaten dute, baina...

Aurkitu letra-zopan zer gertatzen zaien gainerako bost pertsonari. Horretarako, hitz hauek ilundu besterik ez duzu:

Ume, zapata, bide, abere, belarrak, Antartikako, langabezi, txino, uztarria, lodi, aho, itsaso, bola, ile, uxoa, modu, zergatiak, ezpata, atea, diruzalea, mendia, zoru, ibar, orlegi, dio, ari, urre, more, nag, sua, ni, ore, loa, iaz, bi, zu, ez.

Pista bat: hitzak ezkerretik eskuinera eta goitik behera idatzita egon daitezke.

E	Z	P	A	T	A	B	I	B	E	L	A	R	R	A	K
T	G	I	Z	E	N	E	G	I	A	K	A	B	E	R	E
X	A	I	B	Z	U	A	A	I	D	I	T	S	A	S	O
I	T	B	I	O	M	R	H	L	I	E	Z	D	I	R	A
N	E	A	D	R	E	I	O	E	O	Z	A	P	A	T	A
O	A	R	E	U	B	A	T	E	K	O	R	L	E	G	I
G	O	S	E	A	A	N	T	A	R	T	I	K	A	K	O
L	O	D	I	M	U	N	P	A	S	A	T	Z	E	N	Z
D	U	B	I	O	R	A	U	Z	T	A	R	R	I	A	U
N	E	T	A	R	R	G	B	I	K	M	E	N	D	I	A
I	I	A	Z	E	E	I	D	I	R	U	Z	A	L	E	A
D	E	S	N	U	T	R	I	Z	I	O	A	U	X	O	A
B	O	L	A	O	S	Z	E	R	G	A	T	I	A	K	L
M	O	D	U	R	U	P	A	I	R	A	T	Z	E	N	O
D	U	T	E	E	A	L	A	N	G	A	B	E	Z	I	A

6.3.

## 7. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Nola banatzen da aberastasuna? Hamar pertsona horietatik:

- Batek dagoenaren erdia baino gehiago dauka (%59).
- Zazpik laurden bat baino gehiago daukate.
- Beste bientzat dira gelditzen diren apurrak.

Hobeto ulertzeko, margotu irudia honela:

- 0arekin markatutako zatiak berdez.
- 1arekin markatutakoak urdinez.
- Xrekin markatutakoak gorriz.

7.1.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Pertsona guztiok aukera berdinak ditugu? Argi dago ezetz. Ikus dezagun nola dagoen banatuta munduko aberastasuna. Horretarako, margotu irudia honela:

- Gorriz: itsasoarekin lotutako hitzak.
- Berdez: lurarekin lotutako hitzak.
- Urdinez: airearekin lotutako hitzak.

7.3.



## 8. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Eta energia? Pertsona guztiak berdin gastatzen dute?

- 2 pertsonak %80 kontsumitzen dute.
- Beste zortzientzat da gainerako %20a.

Berdinak dira irudiak? Zer falta da behekoan? Marraz itzazu berdinak izan daitezkeen, eta gero, margotu dena.

Bidezkoa iruditzen zaizu bi pertsonak hainbeste gastatzea eta beste zortziek gelditzen dena partekatutako behar izatea?

8.1.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Eta energia? Pertsona guztiak berdin kontsumitzen dute? Begira ezazu hamar pertsona horien energia-gastua:

- 2 pertsonak %80 kontsumitzen dute.
- Beste zortzientzat da gainerako %20a.

Hau da:

- 2 pertsonak 4/5 kontsumitzen dute.
- 8 pertsonentzat da gainerako 1/5.

Hobeto ikusteko, ordenatu laukian agertzen den irudia eta, gero, kopiatu.

8.3.

## 9. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Ikusi dugu pertsona guztiak ez dituztela gauza berdinak. Ezta janari- eta ur-kantitate bera ere. Begiratu hau:

- 7 pertsonak janari-hornidurak dituzte, bai eta haiek gordetzeko lekua ere.
- 2 pertsonak ez dute horrelako ezer.
- Batek ez dauka ezta edateko urik ere.

9.1.

Begira ezazu irudia hobeto ulertzeko eta margo ezazu. Horretarako, koloreztatu arroz-aleak eta itsatsi irudian.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Ikusi dugu pertsona guztiak ez dituztela eskubide eta aukera berdinak. Ezta ura eta janaria lortzeko aukera berdinak ere. Begiratu hau:

- 7 pertsonak janari-hornidurak dituzte, bai eta haiek gordetzeko lekua ere.
- 2 pertsonak ez dute horrelako ezer.

Zer gertatzen da hamargarren pertsonarekin? Deszifratu gurutzegramak eta aurkitu ezkutuko esaldia.

A		U	M	A	M		Z		A	R
N	A	G	U	S	I	A		B	E	A
	B	A	T	E	K		P	A		K
H	I	R	U		O	T	O	I	T	Z
E	L	I		M		E	Z	T	I	A
R	E		D	A	U	K	A		N	
E	Z		I	T		L		N		B
N	I			E	D	A	T	E	K	O
E		E	K		I	T	A		A	
G		G	A		R	U	L		K	G
U	R	I	K		U		O	H	A	R
N	A	N		E		L		A		I
	P		E	R	E		Z	U		S

9.3.

### Horizontalak

- Bokala. Casper, marrazki bizidunetako pertsonaia, ..... bat da (alderantziz). Azken kontsonantea. Radio elementu kimikoaren sinboloa (alderantziz).
- Etxe, empresa, etab. etako jaun, buru edo jabea, bere mendekoekiko. Beatriz.
- Bat hitzaren nork kasua mugagabea. Ume txikiak musu esateko erabiltzen duten hitza. Kontsonantea.
3. Apaizek adibidez ..... egiten dutela esaten da.
- Neska izena. Kontsonantea. Sustantzia likatsu eta oso gozoa, erleek egina.
- Do eskalako 2. nota. Eduki aditza indikatibo eran nor-nori-nork 3. pertsona singularra. M eta gero datorren kontsonantea.
- Ezezkoa. 3. pertsona singularra ingelesez gauza edo animalientzat. Kontsonantea. Kontsonantea. Bartzelonako matrikula letra.
- Singularreko 1. pertsonaren izenordaina. Ura ..... likido bat da.
- Bokala. Erretzen ari den edo erabat bero dagoen zerbaiti darion gasezko produktu-multzoa. (alderantziz). Zuri hitza erdaraz. Bokala.
- Ge ahozkatzen da. Garuna hitzaren lehenengo silaba. Gizakia bizi den planeta (alderantziz). Kilogramo.
- Lehorte garaietan, ..... ez dagoela esaten da. Bokala. Zerbait jakinarazteko, bereziki izkribuz eta gehiantan laburki, egiten den adierazpena.
- Nortasun Agiri Nazionala. Bokala. Litro. Lehenengo bokala. Hirugarren bokala.
- Aparkalekua adiartazteko erabiltzen den letra. Ni ..... joango naiz. Singularreko bigarren pertsonaren izenordaina. Kontsonantea.

### Bertikalak

- Nafarroako matrikula letra (alderantziz). Atzokoaren aurreko egunena.
- Trebetasun. Ameriketako Estatu Batuetako beltzen musika-estiloa.
- Asko. Gauzatu, prestatu.
- Mintzatzeko arazoak dituen pertsona. Dinamika hitzaren lehenengo silaba. K letra pluralean. Bokala.
- Gosea edo egarria jan edo edanez berdindu. Xake- ..... Do eskalako 2. nota (alderantziz).
- Helatu-marka bat. Azken bokala. Aberatsa denak ..... asko duela esaten da.
- Bokala. Musika-instrumentu edo makina baten tekla ordenatuen multzoa. Gidatzeko baimena ateratzen dutenek lehenengo urtean letra hau duen kartela ezarri behar dute autoan.
- El Zorro pertsonaiak idazten duen letra. Alaitasuna. Arto-irinez egindako opila, zabal eta biribila. Azken kontsonantea.
- Baitaki bananduta idatziz gero ..... daki. Negu hitzaren lehenengo silaba. Erakuslea.
- Lehenengo bi bokalak hurrenez hurren. Ohitura zaharrei ..... ko eutsi behar zaiela esten da. Uzkitik kanporatzen den digestio-hondakina.
- Bizkor (alderantziz). Boluntario hitzaren lehenengo silaba. Zuria eta beltza nahasiz lortzen den kolorea.

## 10. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Pertsona askori beste eskubide batzuk ere falta zaizkie. Adibidez:


- 4 pertsonak ezin dute ez jardun eta hitz egin horregatik jazarriak izan gabe.
- 2 bonbardaketa baten, eraso militar baten eta abarren biktima izateko beldurrez bizi dira.

 10.1. Margotu irudia koloretako paper-zatiak itsatsiz.

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Jende guztiak ezin du askatasunez hitz egin, bestela irakurri beheko esaldiak! Zerbait ulertzen duzu? Pazientzia pixka batekin, bereizi hitzak, ordenatu eta deszifratu mezua.

- jazarriak pertsonak kludute eta hitzezineginizangabe jardun
- militar bionbardaketa biktima beldurrez baten izateko bizi dira eraso

 10.2. Marraztu horman graffiti bat egoera hori konpontzeko proposamenarekin.

## 11. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa

Hona hemen gutun bat. Irakurri nahi duzu? Nahi baduzu, ertzak marrazkiekin apainduko ditugu zure gurasoei oparitzeko. Gustatuko zaie.

*GUTUNA:*

*Gaur goizean begiak irekitzean osasun ona duzula esan ahal izan baduzu, aste honetan hilko diren milioi bat pertsonak baino zorte hobea duzu.*

*Gerraren arriskua, bakardadea eta kartzelaratzearen oinazea eta gosearen orbanaz ezagutzen ez badituzu, munduko 500 milioi pertsonak baino zorte hobea duzu.*

*Jazarria, kartzelaratua, torturatua edo eraila izateko beldurrik gabe profesak badezakezu zure sinismena, munduko hiru milioi pertsonak baino zorte hobea duzu.*

*Hozkailuan janaria, janzteko arropa, etxea eta lo egiteko tokia badituzu, munduko pertsonen %75ek ezagutzen ez duten gehiegizko gizarte batean bizi zara.*

*Bankuan dirua gordeta, diru-zorroan dirua edo etxeko tiradera batean txanpon batzuk badituzu, munduko aberatsenak diren %8aren barnean zaude.*

*Zure gurasoak bizirik badaude eta oraindik batera bazaude, benetan apartekoa da...*

*Mezu hau irakur badezakezu, are zorionekoagoa zara. Hau da, mezu hau bidaltzean, norbaitek zugan pentsatu duela esan nahi du, eta irakurtzen ez dakiten bi mila milioi pertsonak baino zorte hobea duzula.*

*Norbaitek hau esan zuen behin:*

*“Ematen duguna beti etortzen zaigu bueltan”*

*Beraz,  
gozatu lanean, diruak garrantzirik ez balu bezala,  
maitatu besteak, inoiz zauritua izan ez bazina bezala,  
egin dantza, inor begira ez balego bezala,  
abestu, inork entzungo ez balizu bezala,  
bizi, mundua paradisia balitz bezala.  
Bidali mezu hau lagun bati. Alaitu iezaiozu eguna.*

### **Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak**

Ikasi baldin badezakezu, zure sinismena profesatu, gerraren beldurrik gabe bizi... zorionekoa zara.

Hori dela eta, mezu bat bidaltzen dizugu zuretzat eta zure gurasoentzat. Osatu esaldiak dagozkien hitzekin.

**Gozatu lanean, diruak garrantzirik ez ..... bezala,**

**Maitatu besteak, inoiz ..... izan ez bazina bezala,**

**Egin dantza, inor ..... ez balego bezala,**

**abestu, inork ..... ez balizu bezala,**

**..... , mundua paradisia balitz bezala.**

**..... mezu hau lagun bati. .... eguna.**

*Begira, alaitu iezaiozu, bizi, zauritua, bidali, balu, entzungo.*

## 12. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Mezu hau mundu hobe eraikitzeko esperantzarekin munduari bira eman zion mezu elektronikoa bat da.

Asma ezazu zein izen jarri zioten mezua munduari buelta ematen hasi zen egunari...

### “Mundua aldatzen hasi den eguna”

Mezu elektronikoa hori esaldi batekin amaitu zen. Asmatu zein den esaldi hori letraz letra.

Lehen letra ‘bera’-n dago eta ez ‘bira’-n  
Bigarren letra ‘more’-n dago, eta ez ‘lore’-n  
Hirugarren letra ‘bare’-n dago, eta ez ‘bere’-n  
Laugarren letra ‘ate’-n dago, eta ez ‘ale’-n  
Bosgarren letra ‘zeru’-n dago eta ez ‘zoru’-n  
Seigarren letra ‘baina’-n dago eta ez ‘baita’-n  
Zazpigarren letra ‘dabil’-en dago, eta ez ‘nabil’-en  
Zortzigarren letra ‘labur’-en dago eta ez ‘labar’-en  
Bederatzigarren letra ‘magal’-en dago eta ez ‘makal’-en  
Hamargarren letra ‘apur’-en dago eta ez ‘apar’-en  
Hamaikagarren letra ‘negu’-n dago eta ez ‘degu’-n  
Hamabigarren letra ‘hari’-n dago eta ez ‘hori’-n  
Hamahirugarren letra ‘bare’-n dago eta ez ‘pare’-n  
Hamalaugarren letra ‘egur’-en dago eta ez ‘agur’-en  
Hamabosgarren letra ‘katu’-n dago eta ez ‘kasu’-n  
Hamaseigarren letra ‘gezi’-n dago eta ez ‘geza’-n  
Hamazazpigarren letra ‘ohe’-n dago eta ez ‘ohi’-n  
Hamazortzigarren letra ‘letra’-n dago eta ez ‘lepra’-n  
Hemeretzigarren letra ‘auzo’-n dago eta ez ‘auzi’-n  
Hogeigarren letra ‘zori’-n dago eta ez ‘zoli’-n  
Hogeita batgarren letra ‘kate’-n dago eta ez ‘kale’-n  
Hogeita bigarren letra ‘atzo’-n dago eta ez ‘atso’-n  
Hogeita hirugarren letra ‘ateri’-n dago eta ez ‘atari’-n  
Hogeita laugarren letra ‘egun’-en dago eta ez ‘egur’-en  
Hogeita bosgarren letra ‘gazi’-n dago eta ez ‘gari’-n  
Hogeita seigarren letra ‘paper’-en dago eta ez ‘piper’-en  
Hogeita zazpigarren letra ‘buztin’-en dago eta ez ‘buztan’-en  
Hogeita zortzigarren letra ‘igo’-n dago eta ez ‘ito’-n  
Hogeita bederatzigarren letra ‘urre’-n dago eta ez ‘erre’-n  
Hogeita hamargarren letra ‘hobi’-n dago eta ez ‘hori’-n  
Hogeita hamaikagarren letra ‘itzuli’-n dago eta ez ‘itzali’-n  
Hogeita hamabigarren letra ‘eman’-en dago eta ez ‘iman’-en  
Hogeita hamahirugarren letra ‘lur’-en dago eta ez ‘zur’-en  
Hogeita hamalaugarren letra ‘tela’-n dago eta ez ‘gela’-n  
Hogeita hamabosgarren letra ‘ardi’-n dago eta ez ‘erdi’-n  
Hogeita hamaseigarren letra ‘anai’-en dago eta ez ‘alai’-en

Zer diozu esaldi horri buruz? Hala dela iruditzen zaizu? Zergatik?





## 13. Fitxa

### Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloak

Dagoeneko dena deszifratu dugunez, ikus dezagun berriro aipatutako guztia:

Lurrean 10 pertsona bakarrik biziko balira:

- 5 gizonetzkoak izango lirateke.
- 5 emakumezkoak.
- 7 helduak.
- 3 haurrak.
- 6 Asiakoak izango lirateke.
- 1 Afrikakoa.
- 1 Latinoamerikakoa.
- 1 Europakoa.
- 1 Ozeaniakoa.
- 3 kristauak izango lirateke.
- 2 musulmanak.
- 1 hindua.
- 3 beste erlijio batekoak edo erlijiorik gabekoak izango lirateke.
- batek zuhaitzek, harriek, naturak arima dutela sinistuko luke.
- bik txineraz hitz egingo lukete.
- batek ingelesez.
- batek hindiz eta urduz.
- batek gaztelaniaz.
- batek errusieraz.
- 2 gizenegiak dira.
- Bik desnutritzioa dute, hau da, beti gauza bera jaten dute, eta hori osasunerako kaltegarria da.
- batek gosea pasatzen du.
- 5 normalak dira.
- batek dagoenaren erdia baino gehiago dauka (%59).
- zazpi laurden bat baino gehiago daukate.
- beste bientzat dira gelditzen diren apurrak.
- 2 pertsonak %80 kontsumitzen dute.
- beste zortzientzat dira gelditzen diren apurrak.
- 7 pertsonak janari-hornidurak dituzte, bai eta haiek gordetzeko lekua ere.
- 2 pertsonak ez dute horrelako ezer.
- batek ez dauka ezta edateko urik ere.
- 4 pertsonak ezin dute jardun eta hitz egin horregatik jazarriak izan gabe.
- 2 bonbardaketa baten, eraso militar baten eta abarren biktima izateko beldurrez bizi dira.

Ze iritzi duzu munduari buruz?

Zer egin daiteke guztiontzat hobea izan dadin?

Idatzi istorio horrentzako amaiera bat, arazoak konpontzeko eta mundu hobea eraikitzeko ideiak proposatuz. Idazlan hori ALBOANera bidal dezakezue, gure web orrian ager dadin. Hona hemen helbidea: [alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org).

